

EUSKOTRENEK ABENDUAREN 6AN, 7AN ETA 8AN TREN ZERBITZUA INDARTUKO DU 'DURANGOKO AZOKA' DELA ETA

Arratsaldez Matiko-Durango tartean ordu erdiro trenak ibiliko dira. Goizez, zerbitzu bereziak ere egingo dira Lezamatik (trena aldatu gabe).

Abenduaren 6an, 7an eta 8an arratsaldez E1 lineako ohiko zerbitzua tren bereziekin indartuko da Durangotik eta Durangora horrela joan-etorriak erraztuko dira azokaz gozatzeko:

- **Matiko – DURANGO – Zaldibar:** goizetan jaiegunetako ohiko zerbitzua mantenduko da, aldiz arratsaldez trenak ordu erdiro eskainiko dira.
- **DURANGO – Matiko:** Trenak arratsaldez ere ordu erdiro zirkulatuko dute, aldiz goizetan zerbitzua orduro egongo da, egunaren lehen orduan errefortzuren batekin.
- **Lezama – DURANGO:** Abenduaren 6an, 7an eta 8an 11:07, 12:07, 16:07, 17:07, 18:07, 19:07, 20:07 eta 21:07an Lezamatik Durangora tren bereziak irtengo dira (trena aldatu gabe). Geldialdia ohiko geltokietan egingo dute. Gainerako E3 lineak jaiegunetako ohiko ordutegia izango du

Zerbitzu berezi honek ohiko zerbitzua osatuko du.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Horrez gain, geltokietan eta geralekuetan Euskotrenen langileei galde diezaiekete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean, Twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) kontuan eta APP ofizialean ere jaso dezakete informazioa

Igorpen data: asteartea, 2019ko abenduaren 3a

Euskadi, auzolana, bien común

